

IÑAKI BAKEDANO, HERNANIAR BAT NEW YORKEN

Amaia Iraola – Mikel Zugasti

Iñaki Bakedano 42 urteko hernaniarra dugu. Estatu Batuetara bizitzera joateko aukera sortu zitzaion orain dela 16 urte, New Yorkera. Hernani ez du ahaztu eta ahal duenean hurbiltzen da herrira. Horietako batean topatu eta elkarrizketa hau egiteko aukera izan dugu. Hemen azalduko dizkigu hango bizimodua, hiri erraldoiari buruzko zenbait kontu eta han nola moldatzen den.



Iñaki Bakedano.

Iñaki, noiz joan zinen New Yorkera? Zerk bultzatu zintuen hara joatera?

Orain dela 16 urte joan nintzen. Beste gauzen artean, gaztea nintzelako, eta aldatzeko aukera ona suertatu zitzaidalako. Gainera, neska laguna amerikarra da eta... nahiko babestuta joan nintzen. Ordura arte inoiz ere ez nuen pentsatu hemendik ateratzea. Baina gauzak aldatu egiten dira eta...

Ezagutzen al zenuen hiria joan baino lehen?

Aurretik ez nuen hiria ezagutzen; topikoetatik, pelikuletan ikusitakoa.

Ingelesezt hitz egiten al zenuen? Beharrezkoa da jakitea?

Ingelesik batere ez nekien. Behar bada lana egiteko ez da beharrezkoa baina jendearekin eta hiriarekin harremanak izateko bai. Mundu guztiko jendea bizi da: afrikarrak, kanadarrak, frantsesak, e.a. eta beraiekin harremanak izateko beharrezkoa da, ez bakarrik amerikarrekin hitz egiteko.

Non edo zertan egiten zenuen lan?

Lehenbiziko lana mezulari moduan egin nuen bizikletan "bike messenger". Oso gustura, baina arriskutsua; gaztea izanik arrisku horietaz ez nintzen batere jabetzen. Izan nituen istripu batzuk baina, esan bezala, gaztea zarenean... *altxa eta segi!*

Sukaldaritza munduan lan egin zenuen. Pentsatu al zenuen euskal jantxeren bat irekitzea?

Edozein tokiko jantxeak daude, janari ona prestatzen dutenak, eta euskalduna bakarra euskal janaria ez ezik jendea paella eta horrelako gauzak jatera ere joaten dena. Garai batean begiratzen egon nintzen baina, oso garestia... diru asko behar zen horretarako. New Yorken diru asko behar duzu horrelako negozio bat jartzeko.

Euskal Etxea badago, maiz joaten zara? Zer egiten duzue han?

Bai, eta joaten naiz. Hala ere, egungo Euskal Etxea aldatu egin da. Lehen etorkinak biltzeko toki bat zen; gaur Euskal Kultur etxe bat nahi dugu ireki. Lokala oso ona dugu eta hemen-dik, Euskal Herritik, badoa jendea zerbait egiteko gogoarekin, kafe antzoki baten modura edo, hitzaldiak, kontzertuak... antolatzeke ideiarekin. Kepa Junkera etorri da, eta albokari, txistulari eta gitarra jole talde bat,... azken hauei nik prestatu nien afaria eta bertan aritu ginen abesten eta parrandan. Gainera, Gernikaren bonbardaketaren urteurrena gogoratzeko ekitaldi bat antolatu genuen, babarrun janak ere antolatzen ditugu, mus txapelketak... Gauzak antolatzen ditugu eta ideiak badaude ildo horretan jarraitzeko baina lana egiteko jende gutxi. Gaur egun joaten diren euskaldunak ez dira gehiegi inplikatzeko proiektuan; nire ustez euskalduna bazara Euskal Etxea aurrera eramaten lagundu beharko zenukeen baina...

Nongoa da Euskal Etxera joaten den jendea?

Hernanikoa ni bakarra naiz baina noizbait herriko batzuk azaldu dira, ezagutzen ez nituenak. Bat Washingtonen zegoen neska lagunarekin bizitzen baina, nire kasu antzekoan zeuden. Nire emaztea minessotarra da eta niri hiri hark ez ninduen batere erakartzen. Bagenekien New Yorken beste bizimodu eta aukerak izango genituela. Horiek ere nahiago zuten New York antzeko hiri batean bizi, errazago egingo zitzaielakoan.

Festak (San Joanak, San Sebastian eguna...) ospatzen al dituzu han zaudenean?

Benoa, ni azken urte hauetan Sanjoanetan Hernanira etortzen saiatu naiz, udan Euskal Etxea itxi egiten dugula aprobetxatuz.

Joan zinenaz geroztik saiatu zara Hernanira Sanjoanetan etortzen. Faltan botatzen al duzu herria?

Hainbestetan ez naiz etorri, baina saiatzen naiz. Bai faltan botatzen dut herria, familia, giroa, jendearekiko harremanak... Horregatik etortzen naiz ahal dudanean.

Sagardotegiei buruz saiatu al zara inoiz hango lagunei nolakoak diren azaltzen?


Bai, saiatu bai, baina oso zaila da, ikusi gabe, sagardotegi bat zer den ulertzea. Hala ere, sagardoa hara eramateko gogo badugu, ea modu bat egiteko lortzen dugun! Bestalde, etortzen naizenean, nik beti eramaten dut.

Nolakoak dira amerikarrak harreman aldetik? Zer nolako harremana daukazu hango jendearekin?

Desberdindu egiten dut New York eta Estatu Batuak. Mundu osoko jendea dago: kolore, ohitura... desberdinetakoak. New Yorke ez dauka zerikusirik beste estatuekin eta hiriekin. Amerikarrak beraiek ere horretaz konturatzen dira. Adibidez ibai pasata eta New Jerseyra joaten bazara beste mundu desberdina dela ikusten duzu. New York oso hiri liberala da. Ni hantatik ateratzen naizen bakoitzean harritu egiten naiz, *oh my god!*

Harremanak bai, baina ez dute gu bezalako ohiturarik: kalean geratu, zerbait edan... hau da, lana egin eta etxera. Ez, ez dituzte ohitura berdinak. Gehienetan etxera joaten dira. Toki batzuetan gureak bezalako etxe arruntak daude baina gehienak etxe handiak dira, eta han, etxean, elkartzen dira. Desberdinak dira baina denetatik dago, ezin da orokortu.





Asteazken zehar nolako da zure bizimodua? Eta aste bukaeratan?

Gaur egun asteazken zehar etxeko gauzak egin ondoren estudiora joaten naiz 6-8 ordu. Argazkigintza munduan mugitzen naiz, lan egiten dut, eta... gustatuko litzaidake nire lanaren erakusketa bat egitea eta horretan ari naiz lanean.

Noizean behin kanpora irteten naiz argazkiak ateratzera. Jendearekin ere geratzen naiz. Aste bukaeran Euskal Etxera joaten naiz zerbait antolatuta badago. Hala ere hango kirol nagusia "shopping" egitea da. Hemen tragotxo bat hartzera geratzen zaren bezala han "let's go shopping" esan eta erosketak egitera joaten zara. Eguraldiaren arabera ere batzuetan mendira joaten naiz, Harriman deritzon eta izugarritzko basoa duen leku menditsu batera; etxetik gertu dago, kotxez ordu batean han zaude.

Irailaren 11ko atentatuak gertatu zirenean, New Yorken bertan zinen, nola bizitu zenuen egun hura eta ondorengoak?

Beno, gaizki. Bizi ginen inguruko kaleak aste osoa itxi egin zituzten, bakarrik bertan bizi ginenok sartzen ginen, besterik ez zegoen. Jendeak desagertutako argazkiarekin kartelak jartzen zituen kalean, bertan bizi eta desagertu zen jendearenak... Gogorra izan zen, kalera atera egotera eta giroa nola zegoen ikustea oso gogorra zen.

Nola ikusi zenuen zuk eta nola beraiek Madril-en martxoaren 11n gertaturiko atentatuak?

Alde batetik oso gaizki. Hasieran guztia publizitatea zen: euskaldunak izan dira, zuek izan zarete. Topo egin nuen hango bulego batean lana egiten zuen espainiar batekin eta berak zioen oso egun kaskarrak pasa zituela jendeak berarekiko zuen jarraitasunetik. Zein izan zen atentatuaren egilea hara iristea kosta egin zen. Badakit epaiketa egin dela, baina hori ez da behar zuen moduan hara iritsi.

Ba al dute Estatu Batuek Euskal Herriaren berririk? Hemengo zerbait ezagutzen al dute San Ferminetako entzuerroaz aparte?

Amerikarrek, uste dut, jakitsuak dira. Nongoa naizen esatean ezaguna egiten zaie baina kontuan izan behar dugu gu oso herri txikia garela. Gauza bera gertatuko zaizu hemengo norbaiti galdetzen badiozu ea non dagoen Montana, jendeak ez du jakin.

Biolentziari buruz iristen zaizkigun berriak, kaleetan, eskoletan edo uni-

bertsitatean gertatutakoak adibidez, oso alarmagarriak direnak. Nola bizitzen dute armak hain errez lortzea?

Kalean badaude betidanik eztabaida batzuk: abortua, armak... baina ez dute ezer egiten. New Yorken adibidez oso-oso zaila da legalki arma baten jabe izatea, zuk han legalki ezin duzu pistola bat edukitu. Baina, joaten zara ondoko estatu batera eta oso erraz erosi dezakezu. Azkenean arma horiek merkatu beltzaren bidez New Yorken bukatzen dute. Oso zaila da hori moztea. Beharbada konpondu daiteke, baina dirua eta boto asko mugitzen da horren inguruan.

Pentsatu al duzu inoiz Hernanira bueltatzea? Ez zaizu lasaiegia irudituko? Bai, hemen nago ez?

Bai, baina bizitzera?

Pentsatu? Oraingo ez dut ezer pentsatu, agian aurrerago bai. Pisu bat erostea gustukoa izango nuke baina oso garestiak omen dira, ezta?


Ez al zaizu hau lasaiegia irudituko?

Ez dut uste. Azkenean New York "herrixka" desberdin bat da. Uste dut baietz, etorriko naizela.

Joan zinetik orain arte al daketa asko ikusi al dituzu Hernanin?

Bai, autobia, errepideak, toki guztietan daude. Auzoak ere aldatu dira,





Azkenean hona bizitzera etortzen bazara, zer botako duzu faltan?

Ez dakit, beharbada han dauden aukerak. Adibidez, oso gustukoak ditut teknologia berrietako produktuak. Orain hemen hasi dira denda espezializatuak baina, gaur egun internetekin aukera handia izan arren, han aukera askoz handiagoa duzu. Hala ere, gaur Urbil, Garbera eta horrelako tokitara joaten bazara, jende asko dabilela ikusten duzu. Non sartzen zen lehen jende hori guztia?

lehen Karrero aldera joatea urrutira joatea zen. Gainera nik ez dut denbora luze bat pasa etorri gabe eta aldaketa guztiak pixkanaka ikusi ahal izan ditut. Ikusten ditudan aldaketak desberdinak dira, adibidez jana-

rietan. Badira produktu asko Ameriketara ezagutu ondoren orain hemen ikusten ditudanak. Jendeak orain hemen badaki zer den kebab bat, freky, loft... gauza hauetan nabaritu dut aldaketa gehien.

Mila esker eta ea Hernanin zure lana ikusteko aukera dugun.

Ziur laster ere berriro egingo dugula topo Inakirekin Hernaniko kaleetan.